

AIDEA BAIÑO ARIÑAGO

Millak urteak dirala, ba-zan egaz egiteko amesa: Babilonia'n, Asiria'n, Ejipto'n eta Grezia'n egaztien egazkadak aztertzen ebezan baiña ezin lortu egaz egite ori. Urgaiñean ibiltea bai, lortu zan, baiña aidean egaztien antzera ibilte ori jainkoen eta deabruen eskubidea zan!

Grezia'ko mito edo kondairetan ba-dagoz egaldiai buruz diranak. Gogoratu Dedalo eta Ikaro.

XI gizaldian gizakiak ego-antzeko tresnakaz torretatik jauziak egin ebezan, baiña antxe il ziran.

Urteen joanean gauza asko aldatu ziran, baiña egaz egitea lortu? Vinci'ko Leonardo'k artu eban egaztien erronka ori. Izan be, Leonardo danerako zan ona: Margolaria, irudigillea, etxegillea, musikalaria, injenieria, asmatzaillea ta giza-zalea.

Gizon zur orrek aztertu ebazan egaztiak eta arein antzera egin eban "ortoptero" izena ezarri eutson tramankulu egalaria, egaz egiteko norberaren besoak eta ankak erabilliz. Baiña dana alperrik! Dana dala, arlo onetan lenengo maisua izan zan eta lenengoa baita aurrerapena barik ondamedia lortu ebenen artean.

Lana'ko Francesko abade italiarra izan zan urrengoa. Onek kortxoa ur-gaiñean gelditzen zala ikusirik, pentsatu eban: Zergaitik ezin leike lortu aizea baiño ariñagoa dan zeozer?

Aide-ontzi bat asmau eban! Ondoan lau globo. Ikusi ebazan aidean ibiltan eta gerraterako onak izango zirala uste eban. Baiña ames utsa izan ziran guda oneik. Dana dala, Leonardo baiño aurrerago joan zan ontzi egalariaren bidean.

1782n. urtean Jose ta Esteban Mongolfier anai ameslariak agertu ziran: Zergaitik ez dogu sartzen laiñoa zaku baten? Sutondoan berba egiten eben artean, sedazko zakua egin eben eta gora egiten ebala ikusi be bai. Eta 1783n. urtean kanpoan egin ebazan saioak, 12 m. 'ko biribil bat orrelan eginda, etxean lez sua azpian zala. 2000 m. gora egin eban biribil orrek, azpiko suak aizea berotzen ebalako eta aize beroa ariñagoa dalako, otza baiño. Ba-goaz gauzak ikasten!

1783n. urtean biribil orretan gizon bik igon eben. Orra or lenengo ibillaldia aizean gora! Barruan metalezko ontzi baten sua eroien. 25 minutuan egaz ibilli ziran Paris'ko etxeen gaiñean eta gozo-gozo lurreratu ziran.

Amar egun geroago Charles fisika-zalea biribil baten igon zan. Au kautxoz eta sedaz egiña zan eta aize ordeztrojenoa erabiltan eban barruan, aizea baiño ariñagoa dalako. Ordu bi aidean Paris'en eta nai izan ebenean jatsi ziran, 40 km. eginda.

Blanchard'ek igaro eban lenengoz Matxa'ko ubidea eta urte beratan Razier beronen lagunak barriro igaro nai izan eban ubide ori eta ez eban lortu. Bertan il ziran.

1793n. urtean Jorge Washington'en aurrean Blanchard'ek egaz egin eban.

Lortu zan ba lenego urratsa: gizakia aidean egaz ibiltea.!

Baiña urrengo asmakizuna "Zeppelin" da. Asmatzaillearen izena daroan tramankulu onek 47m. luze eukazan eta elizari eragiteko iru zaldizko indarra. Orduko 8 km. egiten ebazan baiña aizea aurrez ba'egoan onek gelditu egiten eban. Ez zan abiada aundiagorik lortu motorrak obeak izatea lortu arte, lerkai edo "eksplosiñozko" motorrak.

XIX gizaldian, azkenean, Dumont brasildarrak 1898n. urtean eliz barri bat lortu eban eta Paris'ko teillatu-gaiñean ibiltan zan.

1901n. urtean Saint Clou'tik Paris'era etorri eta Eiffel torreari bira emon eutsoen eta atzera biurtu.

Urrengo, Zeppelin eritxon kondeak, 128m. 'ko zeppelin, biribilla eta aluminiozkoa egin eban. Gero antzeko beste asko egin ziran Alemania'n naiz London'en.

1929n. urtean Zeppelin'ek lur osoa inguratu eban eta 24 egunean 35 000 km. egin ebazan

Egazkiñak asmatu ziran, urterik urtera obeak, baiña orretarako egin ziran alegiñai eta lortu ziran ondamediai beste idaz-lan bat eskiñiko dautsegu. Merezi dau gizakien olako alegiñak eta lortu daben ondoren zioragarriak. Zenbat egazkin eder gaur munduan!

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!